**IGANTZIKO**
**HERRIKO ETXEA**
**(Nafarroa)**

# OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

**Organoa/ Órganoa:** Udalbatza/ *Pleno*

**Deialdia/ Convocatoria:** Lehenengoa / *Primera*

**Bilera mota/ *Tipo de sesión:*** Arrunta / *Ordinario*

**Eguna/ *Día:*** 2023.04.14 / *14.04.2023*

**Ordua/ *Hora:*** *19:30etan / A las 19:30*

**Tokia / *Lugar:*** Herriko Etxeko Bilera Aretoa / *Sala de Plenos del Ayuntamiento*

**Bertaratuak / *Asistentes*:**

- D. Juankar Unanua Navarro jn. Herri Taldea.
- D. Roberto Txoperena Iturbide jn. Herri Taldea.
- Dña. Rakel Miguelena Telletxea and. Herri Taldea.
- D. Manuel Telletxea Iparragirre jn. Herria Taldea.
- Dña. Mertxe Zelaieta Oskoz and. Herri Taldea.
- D. J.P Xabier Sarasola Salegi jn. Herri Taldea.
- Dña. Estitxu Mentaberri Pascual and. Herri Taldea.

**Bertaratu ez direnak/ *No asisten:***

Inor ere ez.

**Idazkaria/ *Secretaria:*** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK/*ORDEN*:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Bortzirietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren (2023-2027) onespena.
3. Alkate Ebazpenak.
4. Galderak eta eskaerak.
5. DUS 5000 programa. Erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietan inbertsioak egiteko dirulaguntzaren eskaera onespena.

IGANTZIKO UDALA · Karrika Nagusia, 5 · 31790 IGANTZI · ☎ 948 63 77 81 · FAX 948 63 73 01 · e-maila: bulegoa@igantzi.eus · I.F.Z. P3125900-E

Erabakiak/ *Acuerdos:*

**1.- Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.**

***1.- Lectura del acta anterior y aprobación si procede.***

2023/03/10eko osoko bilkura arruntaren akta ONETSI DA.

*SE APRUEBA el acta del pleno ordinario del 10/03/2023.*

**2.- Bortzirietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren (2023-2027) onespena.**

***2.- Aprobación del III Plan (2023-2027) para la igualdad de mujeres y hombres en Bortziriak.***

Estitxu Mentaberrik, berdintasun zinegotziak, Bortzirietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren berri eman du. Honako hau 2023tik 2027ra izanen da aplikagarria.

*Estitxu Mentaberri, concejala de igualdad, informa sobre el III. Plan para la igualdad de mujeres y hombres en Bortziriak. Será de aplicación los años 2023 a 2027.*

Horri dagokionez, aipatu du ez dela Bortziriak mailan egiten den lehendabiziko berdintasunerako plana; izan ere, honako hau hirugarrena da. Aitzineko biak, gauza bat edo bertze, ez dira guztiz aitzinera eraman.

*A este respecto, señala que no es el primer plan de igualdad a nivel de Bortziriak, ya que éste es el tercero. Las dos anteriores, por una causa u otra, no se han llevado del todo adelante.*

Honako plana gaur egungo egoerari eta administrazio publikoan aplikatzeko erari egokituta egin dela azaldu du. Zentzu horretan, aipatzekoa da bereziki, berdintasuna zeharkako gaia izanik, planak jarduera guztietan nola aplikatu zehazten duela. Bortzirietako udaletan eta mankomunitateetan berdintasun ikuspegia nola txertatu zehazten du planak: administrazio lanetan, politikoki, etab. Gainera, ez du soilik administrazio publikoa kontuan hartzen, herritarrak eta talde feministak edo antzeko bertzelako eragileak ere kontuan hartzen ditu.

*Explica que este Plan se ha elaborado adaptado a la situación actual y a su aplicación en la Administración Pública. En este sentido, cabe destacar, en particular, que siendo la igualdad una cuestión transversal, el Plan define su aplicación a todas las actuaciones. El Plan define cómo incorporar la perspectiva de igualdad en los ayuntamientos y mancomunidades de Bortziriak: tareas administrativas, políticas, etc. Además, no sólo tiene en cuenta a la administración pública, sino también a la ciudadanía y grupos feministas o a otros agentes similares.*

Horrela bada, plan honek Bortzirietan, era bateratuan, berdintasuna aplikatzeko irizpideak zehazten dituela adieraztera eman du zinegotziak.

*Así pues, el concejal ha dado a entender que este plan define los criterios para la aplicación de la igualdad en Bortziriak de forma unitaria.*

Osoko bilkurak gaiaren inguruan eztabaidatu du. Denen iritziz, ez da bakarrik udalak egin beharreko lanketa bat, denak landu beharreko gaia da berdintasuna. Dena dela, aitzinera ematen den edozein pauso beharrezkoa dela diote, beraz, plan hau lagungarria da beharrezkoa den aldaketa bat aitzinera eramateko.

*El pleno ha debatido sobre el tema. En opinión de todos/as, no es sólo un trabajo a realizar por el ayuntamiento, sino que la igualdad es un tema a tratar por todos/as. No obstante, señalan que cualquier paso que se dé es necesario, por lo que este plan ayuda a llevar adelante un cambio necesario.*

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

*El pleno, oída la información, ACUERDA POR MAYORÍA SIMPLE DEL NÚMERO LEGAL DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN:*

1.- Bortzirietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2023-2027) onartzea.

*1.- Aprobar el III. Plan (2023-2027) para la igualdad de mujeres y hombres en Bortziriak.*

2.- Jakitera ematea Igantziko Udalaren konpromisoa, ahal den neurrian, plan honetan adierazitako helburuak betetzeko.

*2.- Hacer público el compromiso del Ayuntamiento de Igantzi de cumplir, en la medida de lo posible, los objetivos señalados en el presente Plan.*

3.- Akordio honen berri Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*3.- Comunicar el presente acuerdo al Servicio de Igualdad de Bortziriak, a los efectos y conocimiento del mismo.*

**3.- Alkatearen ebazpenak.**

***3.- Resoluciones del Alcalde.***

30/2023tik 50/2023rako Ebazpenen berri eman da eta UDALBATZAK BERRETSI DITU.

*Se informa sobre las Resoluciones 30/2023 a 50/2023 y el PLENO LAS RATIFICA.*

**4.- Galderak eta eskaerak.**

***4.- Ruegos y preguntas.***

Ez dira egin.

*No se realizan.*

Halaber, hurrengo osoko bilkura maiatzeko lehenengo astean izanen dela jakinda eta akordio bat hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, ondorengo puntua osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak.

*Asimismo, sabiendo que la próxima sesión plenaria se celebrará en la primera semana de mayo y de la necesidad de llegar a un acuerdo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 81.2 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la secretaria señala que el siguiente punto puede ser debatido en este pleno.*

**5.- DUS 5000 programa. Erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietan inbertsioak egiteko dirulaguntzaren eskaera onespena.**

***5.- Programa DUS 5000. Aprobación de la solicitud de subvención para inversiones en proyectos locales singulares de energía limpia en municipios con reto demográfico.***

Idazkariak azaldu du DUS 5000 programara aurkeztu zen Elizateako eraikina birgaitzeko obra dirulaguntza eskaera dela eta, gaur bertan jakinarazpen bat jaso egin dela errekerituz hainbat punturen artean, 2021eko abenduaren 12ko osoko bilkurako akordioa zuzendu eta honako hau

*La secretaria explica que con motivo de la solicitud de subvención relativa a la obra de rehabilitación del edificio Elizatea que se presentó al programa DUS 5000, hoy mismo se ha recibido una comunicación requiriendo que, entre varios puntos para subsanar, se debe subsanar el acuerdo del*

abuztuaren 3ko 692/2021 Errege Dekretuko 12.6.a) artikulura egokitzeko.

*pleno de 12 de noviembre de 2021 y adaptar el mismo al artículo 12.6.a) del Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto.*

Kontuan hartuta udal honek laguntza horietarako eskabidea aurkeztu nahi zuela, proiektu bereziarekin, 1. eta 3. neurrien barruan.

*Considerando que este ayuntamiento tenía interés en presentar la solicitud para estas ayudas, con el proyecto singular dentro de las medidas 1 y 3.*

Ikusirik "PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE EDIFICIO ELIZATEA" izeneko proiektua idatzi zela, eta espedientean dagoela jasota.

*Visto que, a tal efecto, se redactó el proyecto denominado "PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE EDIFICIO ELIZATEA", que obra en el expediente.*

Ikusirik udal honek aipatutako laguntzen onuradun izan nahi du.

*Considerando que este ayuntamiento tiene interés en ser beneficiaria de las citadas ayudas.*

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

*El pleno, oída la información, ACUERDA POR MAYORÍA SIMPLE DEL NÚMERO LEGAL DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN:*

1.- Zuzentzea Igantziko Udalaren 2021eko azaroaren 12ko ohiko osoko bilkuraren gai-zerrendako 6. puntu gisa hartutako erabakia, zeinaren idazketa berria honako puntu hauetan finkatzen baita:

*1.- Rectificar el acuerdo adoptado como punto 6 del orden del día del pleno ordinario del Ayuntamiento de Igantzi de 12 de noviembre de 2021, cuya nueva redacción queda fijada en los puntos siguientes:*

Lehenengo.- Onartzea Igantziko Udalaren parte-hartzea 692/2021 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa, Erronka demografikoa duten udalerrietako energia garbiko tokiko proiektu bereziei inbertsioak egiteko zuzeneko laguntzak ematea arautzen duena (DUS 5000 PROGRAMA), Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren Berroneratze eta Erronka Demografikoko Programaren esparruan. Era berean, berariaz onartzea, errege-dekretu horrek arautukako prozedura.

*Primero.- Aprobar la participación del Ayuntamiento de Igantzi en la convocatoria de las ayudas reguladas por el Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto, por el que se regula la concesión directa de ayudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia en municipios de reto demográfico (PROGRAMA DUS 5000), en el marco del Programa de Regeneración y Reto Demográfico del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, así como la aceptación expresa del procedimiento regulado por dicho Real Decreto.*

Bigarrena.- *"PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE EDIFICIO ELIZATEA"* izeneko proiektua osatzen duten jarduketak onartzea, 684.251,37 eurotan, BEZa barne, proiektua aurrekontuan jartzeko konpromisoarekin. Era berean, konpromisoa hartzea proiektua osorik finantzatzeko laguntza kobratu aitzinetik; konpromiso horiek laguntza emateko ebazpena lortzearekin

*Segundo.- Aprobar las actuaciones que componen el proyecto denominado "PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE EDIFICIO ELIZATEA", cuya cuantía asciende a la cantidad de 684.251,37 (IVA incluido), así como el compromiso de dotar presupuestariamente el proyecto en el presupuesto y, el compromiso para financiar la totalidad del proyecto con carácter previo al cobro de la ayuda,*

baldintzatuta, bai eta ebazpenaren gainean eman daitekeen aurrerakina jasotzearekin ere.

*compromisos condicionados a la obtención de la resolución de concesión de ayuda, así como del anticipo que sobre la misma pueda concederse.*

Hirugarrena.- Raul Montero Martínez eta Emilio Pardo Rivacoba arkitektoek idatzitako memoria deskriptiboa onartzea, *"PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE EDIFICIO ELIZATEA"* izeneko jarduerari ekiteko.

*Tercero.- Aprobar la Memoria Descriptiva para acometer la actuación denominada "PROYECTO DE REHABILITACIÓN DE EDIFICIO ELIZATEA", redactada por los arquitectos Raul Montero Martínez y Emilio Pardo Rivacoba.*

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

*Cuarto.- Facultar al alcalde para la firma de cuantos documentos sean necesarios para llevar a efecto el presente acuerdo.*

Bertze aztergairik izan gabe, 21:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat ematen du, eta nik, idazkaria naizenez ziurtatzen dut.

*No habiendo más asuntos a tratar, el alcalde levanta la sesión a las 21:00 horas, lo que yo la secretaria certifico.*

**O.E ALKATEA/ *V.B. DEL ALCALDE***

Juankar Unanua Navarro

**IDAZKARIA/ *LA SECRETARIA***

*Nagore Madariaga Iriarte*

IGANTZIKO UDALA • IGANTZI - NAFARROA •